



Jurisprudentziaren hiru hileko begirada 2022ko uztaila-iraila

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia (EBJA)
Giza Eskubideen Europako Auzitegia (GEEA)

**Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien
Bulegoa
2022ko abendua**



www.ararteko.eus
international@ararteko.eus

the *Journal of Applied Behavior Analysis* (1974), and the *Journal of Experimental Psychology: Applied* (1975).

There are a number of reasons why the *Journal of Applied Behavior Analysis* is the most widely cited journal in the field of behavior analysis.

First, the journal has a long history of publishing high-quality research in the field of behavior analysis.

Second, the journal has a wide range of topics, including basic research, applied research, and clinical research.

Third, the journal has a high impact factor, which is a measure of the journal's influence in the field.

Finally, the journal has a high level of readability, which makes it accessible to a wide range of researchers and practitioners.

Overall, the *Journal of Applied Behavior Analysis* is a leading journal in the field of behavior analysis, and its high citation rate is a reflection of its quality and influence.

References

Journal of Applied Behavior Analysis (1974)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1975)

Journal of Behavior Analysis and Modification (1976)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1977)

Journal of Applied Behavior Analysis (1978)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1979)

Journal of Behavior Analysis and Modification (1980)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1981)

Journal of Applied Behavior Analysis (1982)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1983)

Journal of Behavior Analysis and Modification (1984)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1985)

Journal of Applied Behavior Analysis (1986)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1987)

Journal of Behavior Analysis and Modification (1988)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1989)

Journal of Applied Behavior Analysis (1990)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1991)

Journal of Behavior Analysis and Modification (1992)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1993)

Journal of Applied Behavior Analysis (1994)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1995)

Journal of Behavior Analysis and Modification (1996)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1997)

Journal of Applied Behavior Analysis (1998)

Journal of Experimental Psychology: Applied (1999)

Journal of Behavior Analysis and Modification (2000)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2001)

Journal of Applied Behavior Analysis (2002)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2003)

Journal of Behavior Analysis and Modification (2004)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2005)

Journal of Applied Behavior Analysis (2006)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2007)

Journal of Behavior Analysis and Modification (2008)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2009)

Journal of Applied Behavior Analysis (2010)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2011)

Journal of Behavior Analysis and Modification (2012)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2013)

Journal of Applied Behavior Analysis (2014)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2015)

Journal of Behavior Analysis and Modification (2016)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2017)

Journal of Applied Behavior Analysis (2018)

Journal of Experimental Psychology: Applied (2019)

Journal of Behavior Analysis and Modification (2020)

Laburpen honetan, EBko Justizia Auzitegiak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2022ko uztailetik irailera emandako epaiak jaso dira, Arartekoaren lan-arlo batzuetan interesekoak izan daitezkeelakoan. Txostenean ageri diren epigrafeen sailkapena Arartekoaren lanaren egituraketaren arabera da. Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak epaiak hautatu ditu, eta horien laburpena egin. Arartekoak ez du inolako erantzukizunik hartuko laburpen horien gaineko erabileragatik; ildo horretan, aipaturiko ebazpen judizialen edukirako igorpena egiten du, erabakiez zehatz-mehatz jakiteko.



Lan honek lizentzia hau du: Creative Commons Nazioarteko 4.0 Aitortza (CC BY 4.0)



Arartekoaren argitalpenak ikusteko:

- [web orrian](#)
- [mezu elektronikoko bidez eskaera eginez](#)
- aurrez aurre, hiru bulegoetako edozeinetan, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKOA

Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoa



EDUKIEN TAULA

EPAIAK, ARLOKA (EBJA ETA GEEA)	6
Genero berdintasuna	6
Dimici / Turkia, 2022ko uztailaren 5.....	6
Ingurumena	6
Guakamaio urdinak, 2022ko irailak 8.....	6
Ingurumena / Agiriak eskuratzea	8
Pollinis Frantzia / Komisia, 2022ko irailak 14.....	8
LGTBI norbanakoak / Datuen babesa / Osasuna	9
Drelon / Frantzia, 2022ko irailak 8	9
Indarkeria matxista	9
C. / Errumania, 2022ko abuztuak 30	9
J.I. / Kroazia, 2022ko irailak 8.....	11
Etxebizitza	12
Jansons / Letonia, 2022ko irailak 8.....	12

EPAIAK, ARLOKA (EBJA ETA GEEA)

Genero berdintasuna

GEEA

1. [Dimici Turkiaren aurka](#), 2022ko uztailaren 5koa (demandaren zk.: 70133/16)

Auzitegiek fundazio baten XIV. mendeko estatutuak aplikatzea, fundazioan sartu ahal izatea bakarrik gizonetzkoen baimentzen dietenak, emakume baten eta bere emakume ondorengoen kaltetan.

- GEEHren 14. artikulua (Hitzarmeneko eskubideez baliatzean diskriminatua ez izateko eskubidea), GEEHren 1. protokoloaren 1. artikuluari loturik (ondasunak modu baketsuan gozatzeko eskubidea): urraketa.

Auzitegi nazionalek demandatzaileen emaztearen eta amaren zilegitasuna ukatu zuten otomandarren garaiko fundazio pribatu bateko diru-sarreraren soberakinak jasotzeko, bakar-bakarrik demandanteen *de cuius*-a (jaraunspenaren kausatzailea) emakumea zelako. Auzitegiek zilegitasuna ukatzeko argudioa fundazioaren XVI. mendeko estatutuetan oinarritzen zen. Horren arabera, bakarrik ondorengo gizonetakoek jaso ahal zuten diru-sarrera hori.

GEEAk sexuaren araberako tratu ezberdintasuna dagoela esan zuen, albo batera utzita *de cuius-ak* fundazioaren bestelako diru-sarrerak jaso izana. GEEAk esan zuen estatuak betebeharrak dituela norbanako pribatuen artean gerta daitezkeen diskriminazioak prebenitu eta zigortzeko. Kasu honetan, fundatzailearen nahiaren legezkotasunak ez du ez lehentasunik ezta immunitaterik, egungo ordena publikoko eta GEEHko estandarrak ikusirik. Are gehiago, jardunaren jatorria gizarte turkiarrean, eta modu orokorragoan europarrean, jada gaindituta dauden emakumeen zereginaren ikuspegi arkaikoak eta gizarte eta moral kontzeptu zaharkituak direnean.

Auzitegi nazionalek, legezkotasun printzipioarekin bat etorriz, erabaki zuten Turkiako Gobernua salbuestea demanda honetako legezko jarduketak berrirekizetik, uste zutelako kasu honetako erabakiak denbora ikuspegi jakin bat zuela gizarteko testuinguru jakin bati lotuta egotearren. GEEAk erantzun zuen berrirekiztea konpentsazio modurik egokiena zela.

Antzeko beste epai batzuk: Molla Sali Greziaren aurka, 2018ko abenduaren 19koa, demanda zk.: 20452/14.

Ingurumena

EBJA

1. [C-659/20, ET / Ministerstvo životního prostředí \(Guakamaio urdinak\)](#), 2022ko irailak 8
- 865/2006 Erregelamendua, 338/97 Erregelamenduaren aplikazio xedapenak ezartzen dituen, fauna eta flora basatien espezieak babesteko beraien salerosketa kontrolatuz.

- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 17. artikulua (jabetza eskubidea)

Epai-aurreko erabakia, Txekiar Errepublikako Administrazioarekiko Auzien Auzitegi Gorenak eskatuta, dispentsa eskaerari buruzkoa beren establezimenduan gatibutzan jaio eta hazitako espezieak merkaturatzeko (ale horien arbasoak modu irregularrean garraiatu zituen hirugarren batek).

EBJAK egiaztatu zuen ezin dela kontuan hartu hazle baten jabetzan dagoen espezie babestu bateko alea gatibutzan jaio eta hazi denik bere arbasoak -zeintzuk ez diren hazle horren talde ugaltzailearen barnekoak- espezie horrek naturan bizirautearen aurkakoa den modu batean eskuratu zirenean. Epai honetan EBJAK “talde ugaltzailea” kontzeptua azaldu zuen eta gatibutzan jaio eta hazitako espezieak merkaturatzea debekatzea dispentsatzeko ahalaren irismena mugatu zuen. Horretarako, [865/2006 erregelamenduaren](#) edukia interpretatu zuen. Aurrekoak bermatzen du oso-osorik betetzen dela 1973ko [Basa Fauna eta Florako Mehatxatutako Espezieen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Hitzarmena](#) (CITES, ingelesezko siglekin). CITESen I. eranskinean jasota dago kasu honetan hizpide den espeziea, guakamaio urdina.

Epaiak dio “talde ugaltzailea” kontzeptua ez dela instalazio fisiko jakin batetik bereizita dagoen ugalketa prozesu hutsa. Gatibutzan hazteko establezimendu batean establezimendua bera, jabea, kudeatzailea eta taldea hartzen duten instalazioak identifikatuta egon behar dira. Horregatik, ez daude “talde ugaltzaile” baten barnean sekula jabetzarenak izan ez diren, ezta dagokion establezimenduan egon ez diren arbasoak.

Gainera, EBJAK azpimarratu zuen desagertze arriskuan dauden espezieen aleak merkaturatzeko debekuaren arau orokorra eta animalia espezie bateko alea gatibutzan jaio eta hazi dela kontuan hartzeko baldintzak oso zorrotz interpretatu behar direla. Epaiak azaltzen du beharrezkoa dela kontuan hartzea talde ugaltzaile horretako arbasoaren egoera nolakoa zen inguru naturaletik atera zutenean, zehazteko ea taldea espezieak naturan bizirauteko modu kaltegarrian eskuratu zen edo ez. Espeziea CITESen balego, orduan inguru naturaletik ateratzea kaltegarria da espezieak naturan bizirauteko, eta horregatik, estatu kideek ez dute ahalik arbaso horren aleak saltzeko debekuaren salbuespenik emateko.

EBJAK dio Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 17. artikuluan xedatutako jabetzarako eskubidea ez dela eskubide absolutua, eta beraz, bere egikaritzeak muga justifikatuak izan ditzakeela batasunak aitortutako interes orokorreko helburu bat dela-eta. Kasu honetan, basa espezieen babesean gertatzen da. Jabetzarako eskubidearen eta basa espezieak babesteari lotutako betekizunen arteko haztapan orekatua ezartzean, EBJAK azaldu zuen desagertze arriskuan dauden espezieen aleen merkaturatzeak bultzatu egiten duela ale horiek eskuratzen dituzten merkaturatzea sortu, mantendu eta hedatzea. Gauzak horrela, ondorioztatu zuen merkaturatzea egoteak nolabait mehatxatu egiten duela desagertze arriskuan dauden espezieen bizirautea.

Ingurumena / Agiriak eskuratzea

EBJA

1. [T-371/20 eta T-554/20, Pollinis Frantzia / Batzordea](#), 2022ko irailaren 14koa
- 1049/2001 Erregelamenduaren 4.3 artikulua, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen agiriak publikoki eskuratzeari buruzkoa

Europar Batzordearen bi erabaki, ukatzen zutenak Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzaren (EFSA) orientabide agiriari buruzko zenbait agiri eskuratzea, zehazki erleentzako produktu fitosanitarioen arriskuen ebaluazioari buruz, 2013an hartutakoa. Ukatzearen aitzakia izan zen erabaki prozesua eta pribatutasuna babestu behar zirela.

2018 eta 2020 urteen artean erleak eta bestelako intsektu polinizatzaileak desagertzearen aurka lan egiten duen POLLINIS izeneko frantziar GKEak Europako Batzordera hainbat eskaera bidali zituen agiri batzuk jasotzeko, zehazki “erleen probak”; protokolo zientifikoak, hain zuzen ere hobeto ebaluatzeko pestizidek duten toxikotasuna polinizatzaileetan, horiek merkaturatu baino lehen. Europako Batzordeak ukatu egin zuen agiri horiek eskuratu ahal izatea, arrazoituta pribatutasuna eta integritate indibiduala babesteko salbuespena ezarri zela, eta baita ere erabaki prozesua babesteko salbuespena, 1049/2001 Erregelamenduaren 4.1.b eta 4.3 artikuluen bidez bermatuta daudenak.

EBJAK egiaztatu zuen erabaki prozesua babesteko salbuespena ez dela aplikatzekoa eskatzen diren agiri guztietan, izan ere, agiri horien gaineko erabaki prozesua bukatuta zegoen informazio eskaera egin zenean. Erabakian jasota dago 2013ko agiriak Europar Batzordeak eskatuta berrikusten ari zirela, baina berrikuspen hori ez zela erabaki prozesua, ez baitzuen xederik. Erabaki prozesuak xedea falta zuen, izan ere, berrikuspena martxan zegoenez, ezinezkoa zen berrikusitako edozein agiriren edukia, erabakia hartzearen forma posiblea edo horretarako jarraitu beharreko prozedura ezartzea.

Horretaz gain, EBJAK bere ikuspegia azaldu zuen hipotetikoki erabaki prozesua egongo balitz. Horren inguruan EBJAK azaldu zuen agiriak eskuratzeko Europako legeriak ez duela justifikatzen EBko erakundeek hasiera batean ukatzea estatu kideen ikuspegi indibiduala adierazten duten erabakiei buruzko agiriak eskuratu ahal izatea. Erabakiak gehitzen du aurrekoa ez dela oztopoa EBko erakundeentzat, ukatu ahal izan dezaten erabaki prozesu baten parte gisa estatu kideen ikuspegi indibidualak jasotzen dituzten agiriak eskuratu ahal izatea, baldin eta behar beste justifikatutako kasuak badira, non agiriok publiko egiteak 1049/2001 erregelamenduko salbuespenek babestutako interesen aurka egin lezakeen.

EBJAK 1049/2001 erregelamenduak (eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 42. artikulua) bermatzen duen erakundeetako agirien eskuragarritasun publikorako eskubidea gogorarazten du. Horren arabera, asmoa da Europar Batasun bat sortzea, non erabakiak ahalik eta modurik irekienean eta herritarrekiko hurbiltasun gehienarekin hartzen diren, eta eskubide hori lotuta egotea EBko erakundeen izaera demokratikoari. Horretarako, eskubide hori ahalik eta modurik zabalenean ulertu behar da, eta eskubide horrekiko salbuespen guztiak zorrotz interpretatu eta aplikatu behar dira.

LGTBI norbanakoak / Datuen babesa / Osasuna

GEEA

1. [Drelon Frantziaren aurka](#), 2022ko irailaren 8koa, (3153/16 eta 27758/18 zenbakidun demandak)

Datuen erregistroa susmoetan oinarritutako odol emaile posibleen jokabide sexualari buruz, eta datuak denbora gehiegiz gordetzea organo publiko batek.

- GEEHren 8. artikulua (bizi pribatu eta familia bizitzarako eskubidea): urraketa
- GEEHren 14. artikulua (hitzarmeneko eskubideak egikaritzean diskriminatua ez izateko eskubidea): ez dagokio

Demandatzailea odola ematera joan zen, eta odola eman aurreko mediku elkarrizketan ez zien erantzun bere bizi sexualari buruz egindako galderari. Gainera, erantzutearen aurka agertzearen bakarrik, estatuko titulartasuneko den Frantziako Odol Emaileen Zerbitzuak (EFS, frantsesezko siglengatik) demandatzailea kanporatutako odol emaile gisa erregistratu zuen, gizonekin sexua duten gizonei modu jarraituan aplikatzen zaien kontraindikazio batean oinarrituta. Odola emateko nahia ukatu egin zitzaion arrazoi horrengatik.

GEEAk egiaztatu du hain sentikorrek diren datuak jaso eta gordetzeak (kasuan kasu herritarren sexu orientabide eta praktikak horrelako epe luze batean), eta gainera, demandatzailearen baimenik gabe eta espekulazio hutsetan oinarrituta eta arrazoi objektiborik gabe, ez dituela betetzen datuen kalitate irizpideak, besteak beste osasuna babesteko helburuetarako datuak zehatzak, eguneratuak, egokiak, garrantzitsuak eta ez gehiegizkoak izatea. Hori dela eta, nahiz eta estatuak baloratzeko gaitasuna izan, GEEAk deklaratu zuen 8. artikulua urratu zela, eta albo batera utzi du 8. artikulurekiko konjuntzioan 14. artikulua ez betetze posiblea aztertzearen beharra.

GEEAk baieztatu du legeriak zuzen arautu zuela datuak gordetzea zenbait pertsona odol emaile gisa kanporatzeko kodifikazioaren bitartez, eta aurreko guztia kontuan hartuta [2022/98/EC Zuzentaraua](#), gizakien odola eta bere osagaiak atera, egiaztatu, tratatu, gorde eta banatzeko kalitateari eta segurtasunari buruzkoa. Gainera, GEEAk ziurtatu du datuak gordetzearen interferentzia horrek osasuna babesteko zilegizko xedea betetzen zuela, ikusirik GIB eta C hepatitisaren birusak zituen odolarekin modu ez seguruan transfusioak egin izanak sortu zituen arazoak eta estatuak duen betebeharrak positiboa GEEHren bizitzarako eskubideari buruzko 2. artikulua betez. Hala eta guztiz ere, erabakiak deklaratu du 8. artikulua urratu zela datuak gordetzeko beharrezko azterketaren arabera, ikusirik [Europako Kontseiluaren 1981eko datu pertsonalak automatizatuta tratatzeari lotuta norbanakoak babesteko hitzarmenaren](#) datuen kalitateari buruzko 5. artikulua. Aurreko guztia, beharrezkotzat jo gabe ikertu beharra ea odol emaileak hautatzeko beste irizpide batzuk erabili ahal izan ziren.

Indarkeria matxista

GEEA

1. [C Errumaniaren aurka, 2022ko abuztuak 30 \(demanda zk.: 47358/20\)](#)

Akats handiak lantokian, ustez gertatutako sexu jazarpeneko krimen baten ikerketa penalean

- GEEHren 8. artikulua (bizi pribatu eta familia bizitzarako eskubidea): urraketa
- GEEHren 14. artikulua (hitzarmeneko eskubideak egikaritzean diskriminatua ez izateko eskubidea): ez dagokio

Demandatzaileak garbiketa konpainia batean lan egiten zuen estatu titulartasuneko tren geltoki batean. Demandatzaileak geltokiko kudeatzailea salatu zuen sexu jazarpenarengatik, lehenik eta behin bere enpresan eta gero polizian, ikusirik enpresak jokaera pasiboa izan zuela (azkenean kaleratu egin zuten). Ikerketak egitateak baieztatu zituen, baina fiskaltzak kausa artxibatzea erabaki zuen, esanez egitateek ez zutela betetzen “umilazio” elementua, eta Errumaniako zigor kodeak horixe eskatzen du sexu jazarpena zehazteko. Erabakia baieztatu zuten fiskaltzaren buruzagitzak eta auzitegiak. Prozeduraren parte gisa, agintaritzek demandatzailea eta kudeatzailea aurrez aurre jarri zituzten.

GEEAk egiaztatu zuen 8. artikulua testuinguru pertsonalak demandatzailearen osotasun psikologikoa eta bizitza sexuala babesten dituela, baina azaldu zuen osotasun moralari eragiten dieten jarduketak guztiak ez direla babes horren xede. Horrek ondorioztatuko luke GEEAk ez duela uste sexu jazarpeneko forma guztiak babesaren xede izan daitezkeenik 8. artikulua araberara. Gainera, erabakiak deklaratu du estatuak ez zituela bete 8. artikulua araberako betebeharrak positiboak, ikusirik kudeatzailearen lanpostua publikoa zela eta prozeduran akatsak egin zituztela.

GEEAk kasuaren erdigune gisa jartzen du lantokian mekanismoak falta izatea norbanakoak sexu jazarpenetik babesteko, eta horrek 8. artikulua urratzen du. Erabakiak gogorarazten du Europako Batasunaren Enplegu eta Lanpostuetako arloetan emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko [2006/54/EC Zuzentarauak](#) eskatzen duela jazarpena prebenitzeko neurriak aurreratzeko, eta Europar Batasunean sexu jazarpenaren eta gehiegikerien aurkako borrokaritza buruzko [Europako Parlamentuaren 2017ko urriaren 26ko ebazpenak](#) dioela lantokian egiten den jazarpena osasun eta segurtasun arazo delako. GEEAk agintaritzak kritikatu ditu demandatzailearen salaketaren frogak balioa kontuan ez hartzearen, eta era berean, aitortu du salatzen diren sexu jazarpenarengatik kasu kopuruak benetan gertatzen direnak baino askoz ere gutxiago direla, eta dio biktimentzat zaila izaten dela egitateak frogatzea. Hala, GEEAk azpimarratu du beharrezkoa dela kasu horietan zigorgabetasunarekin bukatzea. Gauzak horrela, GEEAk dio sexu jazarpeneko kexak testuinguruan jarri behar direla, bereziki aztertzeke botere desoreka, eta agintaritzak kritikatu ditu kontuan ez hartzearen demandatzailea lanetik kaleratu zutela tren konpainiak salaketaren berri izan zuenean.

GEEAk dio fiskaltzak “bihozgabe eta lotsagabeki” jardun zuela abusatzaileak demandatzailearen aurka egindako akusazioak zehaztu zituztenean, eta hori justifikatu ezin den estigmatizazioa dela. Alde batetik, argudio horiek, frogatzeaz gain biktimak erdigune jotzen dituen ikuspuntua aurrekaririk gabe aplikatu zela, ondorioztatzen dute GEEAren nahia dela etorkizuneko kasuetarako estandar bat ezartzea erantzun ofiziala emateko, eta horrek 8. artikulua araberara, betebeharrak positiboak bete behar duela. Beste alde batetik, GEEAk egiaztatu zuen beharrezkoa dela biktimaren duintasuna eta sentzibilitatea zaindu eta babestea biktima akusazioarekin aurrez aurre jartzearen beharra zehazterako orduan, eta deklaratu zuen konfrontazio horiek ekidin egin behar direla, salbu eta horiek egin beharra egiaztatzen bada. Hala eta guztiz ere, GEEAk ez du deklaratu estigmatizazioa eta birbiktimizazioa estatuaren betebeharrak negatiboak ez-betetzeak direnik 8. artikulua araberara.

Edonola ere, erabakiak deklaratu du ez dela beharrezkoa 14. artikulua aplikatzea, kontuan hartuta demandatzaileak ez duela frogarik aurkeztu diskriminazioa frogatzeko. Arrazoiketa hori nazioarteko esparrutik aldentzen da, zeinak sexu jazarpenera aitortzen baituen diskriminazioa eratzeko indarkeria matxistaren forma gisa ([Istanbulgo Hitzarmena](#), [190 OIT Hitzarmena indarkeriari eta jazarpenari buruz](#), [Batzordearen 35. Gomendio Orokorra](#), [19. Gomendio Orokorra eguneratzen duen Emakumeen aurkako diskriminazioa deuseztatzeko dena.](#)). Halaber, GEEAk bere erabakiaren beste atal batean aipatzen duen 2006/54/EC Zuzentarauak zehazten du ezen diskriminazio zuzena edo zeharkakoa egon daitezkeela sumatzea eragiten duten jazoerak gertatzen direnean, alderdi demandatuari dagokiola frogatzea ez dela urratu tratu berdintasunaren printzipioa.

2. [J.I. Kroaziaren aurka](#), 2022ko irailak 8 (demandaren zk.: 35898/16)

Ez betetzea modu eraginkorren bortxaketaren biktima zaugarriaren aurka bere abusatzaileak eta aitak ustezko heriotza mehatxuak ikertzeko betebeharra, legeria nazionalaren kontra eginez.

- GEEHren 3 artikulua (torturaren debekua): urraketa.
- GEEHren 14. artikulua (hitzarmeneko eskubideak egikaritzean diskriminatua ez izateko eskubidea): ez dagokio

Kasu hau romani etniako emakume baten aurkako etxeko indarkeriari buruzko lehen kasua da, eta romani etniako gazte baten aurkako sexu indarkeriari buruzko bigarrena. Demandatzailearen aita zigortua eta espetxeratua izan zen bere aurkako hainbat bortxaketa eta intzestu karguengatik. Espetxetik ateratzeko baimen bat zuela, aitak ustez demandatzailea hiltzeko mehatxua egin zuen bere senideen bitartez. Demandatzaileak poliziarengana jo zuen hiru aldiz, laguntzarako telefono deia egin zuen, aurrez aurre bertara joan zen eta idazkia bidali zuen bere defentsarako, eta hiru saiakeretako batek ere ez zuen ikerketa penalik abiarazi.

GEEAk egiaztatu zuen demandatzaileak sufritutako gehiegizko trauma psikologikoa, jazarpen eta errepresalia handiagoak jasatearekiko beldurra, antsietatea eta egoerak sortutako babesgabetasun sentimenduak tratu ankerrak direla GEEHren 3. artikulua araberako. Aurrekoak baieztatu egiten du GEEAren jurisprudentzia errepikatutako biktimizazioari buruz eta tratu ankerrak eratzeko dituen jokabide gisa.

Erabakiak dio demandatzaileak zuen zaugarritasun espezifikoak ikusirik sexua, jatorri etnikoa eta aurreko traumak zirela-eta (horrek erakusten du GEEAk ikuspegi interseksionala duela), agintaritzek berehala jardun behar izan zutela demandatzailea mehatxua egi bihurtzearen aukeratik, beldurraraztetik, errepresaliengandik eta errepikatutako biktimizaziotik babesteko. GEEAk estatuaren betebeharra jorrotzen du bakarrik demandatzailearen salaketak ikertzeko betebeharrari dagokionez, baina ez ditu aztertzen indarkeria matxisten kasuak jorrotzeko protokoloak dituen gabeziak, zeintzuek beste gauza batzuen artean ahalbidetu zuten akusatuak bere baimenaz gozatu ahal izatea demandatzailea bizi zen hiriko eremu berean.

Erabakiaren ikuspegi interseksionala gorabehera, GEEAk deklaratu zuen 14. artikulua ez dela bereizita aplikatzen, izan ere, kasuaren inguruabarrek eta poliziaren estatistikek ez baitzuten berresten poliziak demandatzailearekiko izandako etengabeko jokaera zabarra jatorri etniko romaniarengatik izan zela. Horrekin lotuta, Romani Etniako Pertsonen

Eskubideen Europako Zentroak (ERRC, ingelesezko siglak direla-eta) hirugarren alderdi gisa esku hartu zuen, beste batzuen artean aurkezteko Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziaren (FRA, ingelesezko siglak direla-eta) datuak romani komunitateak kroaziar agintaritzen aurka duen konfiantza faltari buruz, izan ere, gehiegikeriak sufritzen dituzte.

Antzeko beste epai batzuk: Volodina Errusiaren aurka, 2019ko uztailak 9, 41261/17 zenbakidun demanda; Tunikova eta beste batzuk Errusiaren aurka, 2021eko abenduak 14, 55974/16 zenbakidun demanda.

Etxebizitza

GEEA

1. [Jansons Letoniaren aurka](#), 2002ko irailak 8 (1434/14 zenbakidun demanda)

Demandatzailea babesteko betebeharra ez betetzea, bere etxebizitzan modu ilegal eta bat-batekoan sartu zen eta demandatzailea etxean sartzea galarazi zuen jabe berriaren aurrean; interferentzia legez kanpoko kaleratzearen bidez.

- GEEHren 8. artikulua (bizi pribatua eta familia bizitza izateko eskubidea) eta GEEHren 13. artikulua (baliabide eraginkorra izatearen eskubidea): urraketa

Kasu honetan norbanako pribatuen arteko gatazka horizontala jorratzen da, eta “bertikalizatu” egin zen GEEAn onartua izateko. Demandatzailea eraikin bateko apartamentu batean bizi zen eta eraikinaren jabearekin “establezimendua erabiltzeko” akordioa zuen. Eraikina pertsona pribatu bati saldu eta gero, jabe berriak demandatzaileari esan zion establezimendua utzi behar zuela, eta demandatzailearen alokairu ordainketak onartzeari utzi zion. Demandatzaileak establezimendua utzi nahi ez zuenez (demanda zibila aurkeztu zuen bere alokairu kontratua aitortua izan zedin eskatzeko), jabe berriak demandatzailea kanporatzeko segurtasun armada pribatuko konpainia bat kontratatu zuen. Poliziak ez zuen horretan esku hartu, nahiz eta demandatzaileak hainbatetan deitu zuen. Ondoren, agente judizial batek betearazi egin zuen jabe berriak eraikinaren jabetze zuela aitortzen zuen agindua, eta demandatzailearen ondasun guztiak atera zituen. Aurreko guztia, nahiz eta demandatzaileak agente judizialari jakinarazi zion bera zela etxebizitzaren alokatzailea.

GEEAk egiaztatu zuen estatuak ez zuela bete demandatzaileak bere etxeaz disfrutatzen zuten eskubidea babestearen betebeharra jabe berriak kaleratu zuenean, izan ere, ez zen kaleratzeko agindu judizialik eman. Demandatzaileak apartamentuarekiko zuen kontratu harremanaren legezotasuna baloratzeko beharra albo batera utzita, GEEAk bere jurisprudentzia baieztatu du, deklaratzeko demandatzaileak lotura betekizun nahikoak eta jarraituak zituela apartamentuarekin hori bere etxea izan zedin 8. artikuluko babesaren ondorioetarako. Zehazki, erabakiak dio poliziak ez zuela jardun eta Letoniako Herriaren Defendatzailearen txostenak aipatzen zituen, eta azpimarratu zuen poliziaren pasibotasuna zela-eta jabe pribatuak legez kanpoko jarduketa gehiago egin zituela. Gainera, GEEAk azkenik demandatzailearen legez kanpoko kaleratzea osatu zuten agente judizialaren jarduketak aipatu zituen, ez baitzegoen kaleratzeko agindu baliozkorik.

GEEAk ez du “kaleratzea” kontzeptua definitu, eta kasu jakin honetan ez du zehaztu noiz betearazi zen kaleratzea edo nork betearazi zuen, eta horretarako jabe berria eta agente

judiziala aipatu zituen. Definizioaren kontua ebazteko kontuan har liteke [Nazio Batuen Erakundearen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen 7. Ohar Orokorra](#), etxebizitza duina izateari buruzkoa. Horrek nahitaezko kaleratzea definitzen du modu honetan: “norbanakoak, familiak eta/edo komunitateak okupatzen ari diren etxe eta/edo lurretatik kaleratzea modu iraunkor edo behin-behinekoan, babes legala edo bestelakoa izateko bitarteko egokirik eskaini gabe eta horietara sartzea galaraziz”.

Berre prozesalen inguruan GEEAk deklaritzen du demandatzaileak bere jabetzak lehengoratzeko hasi behar izan zuen prozedura zibila desegokia izan zela, eta hori proportzioz gaindiko karga dela bere eskubideak defendatu behar dituztenentzat etxea galdu ostean. Erabakiak dio aurretiaz alderdien artean zegoen legezko eztabaidak, bai bide zibiletik (alokairu kontratuaren baliozkotasuna zehazteko), bai bide penaletik (etxearen bortxaezintasunaren arabera) oker jokatu zuela, kaleratzearen inguruan erabakirik hartu ez zuelako.

Antzeko beste epai batzuk: McCann Erresuma Batuen aurka, 2008ko maiatzak 13 (demandaren zk.:[19009/04](#)); Ćosić Kroaziaren aurka, 2009ko urtarrilak 15 (demandaren zk.:[28261/06](#)); Vrzić Kroaziaren aurka, 2016ko uztailak 12 (demandaren zk.:[43777/13](#)); F.J.M. Erresuma Batuen aurka, 2018ko azaroak 6 (demandaren zk.: [76202/16](#))





Zuzeneko arreta bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxe: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbo
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate. 19, 1.a
20005 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88